

## RAMON SAIZARBITORIAREN *HAMAIKA PAUSO* ELEBERRIA

**B1** BILBO ZAHARRA euskaltegiko ikasle-irakasleek “Klasikoen irakurraldi etenik gabea” antolatu ohi dute urtero, ikasturtearen amaieran, euren “Ikasleen jaia” ospakizunaren baitan. Munta handiko ekitaldia da, dudarik gabe, Arriaga antzokian burutu ohi dena: Hamabi ordu, laurehun irakurle, berrogeita hamar eragile sozial...

Ekimen hau duela hiru urte hasi zen eta Axularren *Gero* liburuaren irakurraldiak eman zion hasiera. Bigarren urtean, Mogelen *Peru Abarca* liburua irakurri zuten. Hirugarrenean, Jon Miranderen *Haur besoetakoa* eta aurten, berriz, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso* izan da ekainaren 16an Bilboko Arriaga Antzokian irakurtzeko aukeratutako lana.

Irakurketa eta jaia. Konbinazio bitxi samarra iruditu arren, ez da harritzekoa. Izan ere, gero eta ikasle-irakasle gehiago dago euskal literaturaz gozatzen dena eta klasikoak irakurritz ongi pasatzen duena.

Zuk ere gauza bera egin dezazun animatu nahi zaitugu eta bide horretan laguntzeko, *Hamaika pauso* liburuaren gaineko hainbat proposamen aurkituko dituzu hurrengo orrialdeotan.

Helburua gauzatzeko, hauek izango dira egingo dituzun lanak:

- Ramon Saizarbitoria idazlearen gaineko hainbat testu motz irakurriko dituzu eta bertan egile honi buruz adierazgarrienak iruditzen zaizkizun ezaugarriak idatziz jasoko dituzu.
- Ramon Saizarbitoriaren bi biografia labur irakurri eta bi testuen arteko desberdintasunak atzematen saiatuko zara.
- *Hamaika pauso* izenburua gaztelaniara nola itzuli den atzematen saiatuko zara eta eleberriri buruzko azalpen-testu batzuk irakurriko dituzu, liburuaren argumentu nagusiaren lehen hurbilpena zure hitzekin hainbat lerrotan osatu ahal izateko.
- *Hamaika pauso* eleberriko hainbat pasarte eta dagozkien pertsonaiak lotuko dituzu.
- Eleberriko hainbat gertakariri izenburu egokia jarriko diezu, aukeran emandakoen artean hautatutakoan.

Sekuentziaren bukaeran, aukeran ematen zaizkizun lau jardueratik bat aukeratu eta dagokion idatzia prestatuko duzu.

## 1 RAMON SAIZARBITORIA: LEHEN HURBILPENA

Ramon Saizarbitoria idatzi zuen *Hamaika pauso* liburua. Bere biografia laburra irakurri aurretik, ordea, berari buruz hainbat argitalpenetan idatzitako pasarte batzuk irakurriko ditugu:

*Euskal kultura gaur* (Jakin, 1997) liburuan Joan Mari Torrealdai euskal idazleen artean egindako inkestaren arabera, azken 20-25 urteotako 10 euskal obra "hoberenen" artean *Hamaika pauso*, *Espainolak eta euskaldunak*, *Ehun metro*, *Gizona bere bakardadean* eta *Ni ez naiz hemengo* zeuden. Hau da, hautatuen erdiak zuzen-zuzenean gatazkari lotuak zeuden (beste bostak *Obabakoak*, *Otto Pette*, *Narrazioak*, *Babilonia* eta *Azukrea bela-zeetan* ziren). Ildo berean, inkesta horren arabera, hamar idazle "hoberenak" Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionandia, Joan Mari Irigoien, Koldo Izagirre, Txillardegia, Joxe Austin Arrieta, Joxe Azurmendi eta Juan Mari Lekuona ziren.

**Mikel Soto**

"Ezer baino lehen, Ramon gustatu zait oso istorio kontalari ona delako. Gainera beti aurkitzen du forma egokiena esan nahi duena esateko, eta bere aurkikuntza formalak batzuetan jenialak iruditzen zaizkit. Horrez gain, gaien sakontasunagatik eta gai sozialekiko sentiberatasunagatik ere oso atsegin dut. Gauza guztien azpian jendearen zorientasuna nahi duela sumatzen da. Bere pertsonaia gaixok sufritzen dutenean badirudi berak ere sufritzen duela haiengatik. Bere pertsonaiez urrikaltzen dela esango nuke".

**Mikel Hernandez Abaitua**

"Argitalpenetik argitalpenera denbora tarte luzea uzteko joera du Ramon Saizarbitoria, baina, era berean, literaturaren esparrura beti itzultzen da nobela mardul bat besapean duela. Asko dira idazle honen izena *Ehun metro*, *Egunero hasten delako* edo *Hamaika pauso*-rekin lotzen dutenak, besteak beste, nobela haietan erabilitako teknikek ezagun bilakatu dutelako Saizarbitoria. Euskal Herriko literaturan *Nouveau Roman* esatea Ramon Saizarbitoria esatea da, edo horrela izan da orain arte behintzat".

**Estibalitz Ezkerra**

"Ramon Saizarbitoria, euskal idazlerik onenetakoa eta dudarik gabe dotoreena, maisua da, halaber, gazteak eta zaharrak epatatzen, inor baino guayago eta iraultzaileago agertzen, tarteka".

**Xabier Mendiguren Elizegi**

"Euskal idazleen artean mirespen bat aitortu behar dut eta hori Ramon Saizarbitoria da. Ramonek goi sukaldaritzaz egiten du".

**Arantxa Urretabizkaia**

"Saizarbitoriaren eleberrak modernoak direla esaten denean, kontuan izan behar da nobelaren idazketaz ari garela".

**Mari Jose Olaziregi**

"Berehala dakigu zer den Ramonena eta zer ez. Ramonek bere haragian bereganatu du hain propioa zaion estiloa. Ez da esperimuntua, estiloa baikik. Nere ustez. "Egunero hasten delako" hartatik asko akabatu, pulitu du bere estiloa.


**Angel Lertxundi**

"Saizarbitoria euskal eleberraren modernizatzaile nagusi gisa kontsideratua izan da hainbat urtez. Gero, hemeretzi urtez isildu da. Lehen mailan egon eta Atxagaren fenomenoaren agertzen denean, bat-batean, baztertuta gelditzen da, eta ahantzia. Atxaga bihurtzen da euskal literaturako gunea, eta Saizarbitoria aspaldiko idazle bat. Bigarren mailakoa. Nire iduriko, Saizarbitoria idaztera bultzatu duen elementuetariko bat hori da, bere tokia galdu izana. Berreskuratu nahi izan du. Eta itzuli den Saizarbitoria lehen mailako eleberrak idatzi ditu. Ni, bere obran, xede horren, anbizio horren aztarnak aurkitzen saiatzen naiz. Lehia horren aztarna alegorikoak. Bi modelo literarioen lehia badago. Euskal literaturaren kontzeptio ezberdinak dituzte, gainera, biek. Ez dira ados".

**Ur Apalategi**

Testu motz hauek irakurrita, nolako irudikatzen duzu zuk Ramon Saizarbitoria idazlea? Aukera itzazu berari buruz adierazgarriak iruditu zaizkizun hitz, molde edo adjektiboak eta hemen idatzi:


.....  
 .....  
 .....



## 2 RAMON SAIZARBITORIAREN BIOGRAFIA: ZERTZELADA BATZUK

Egilearen bizitzari buruz zerbait zehatzagoa jakin nahian, bi iturri desberdinetara jo dugu. Hona hemen bi helbideotan Ramon Saizarbitoriari buruz irakur daitekeen informazioa:

### A testua



**Ramon Saizarbitoria**

Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944). Soziologoa. Gizarte Zerbitzuen **arloan** liburu **ugari** argitaratutakoa. SII S Dokumentazio eta Ikerketa zentroko zuzendaria. Bere traiektoria profesionala dela eta Eusko Jaurlaritzaren I. Sustatu **saria eskuratu** zuen 1994an. 60ko urteetatik aurrera euskal **hedabide** gehienetan hartu du parte. 1967an LUR argitaletxea sortu zuen beste idazle batzuekin batera, eta 70eko urteetan *Oh Euzkadi* Literatur aldizkaria. 1992an IV. Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi zuen. 1971n *Kapitaina* ipuin **aipagarria** argitaratu zuen *Hegatsez* liburuan. **Nobelagile** gisa da, halere, ezagunago: *Egunero Hasten Delako* (1969), *Ehun Metro* (1976), *Ene Jesus* (1982) Kritika Saria, *Hamaika Pauso* (1995) Kritika Saria eta *Bihotz bi* (1996) Kritika Saria. *Aberriaren alde* (aberiaren kontra) **saio** aipagarria 1999koa da. *Gorde nazazu lurpean* (2000) Kritika Saria eta Euskadi Literatura Saria 2001, *Gudari zaharraren gerra galdua* (2000), *Rossetti-ren obsesioa* (2001), *Bi bihotz, hilobi bat* (2001) eta *Kandinskyren tradizioa* (2003) dira egilearen azken liburuak.

**AIPAGARRI.**- *Relevante.* Remarquable.  
**ARLO.**- *Campo.* Domaine.  
**ESKURATU.**- *Conseguir.* Réussir.  
**HEDABIDE.**- Komunikabide. *Medio de comunicación.*  
 Moyen de communication.  
**NOBELAGILE.**- *Novelista.* Romancier/ère.  
**SAIO.**- *Ensayo.* Essai.  
**SARI.**- *Premio.* Prix.  
**UGARI.**- Asko. *Mucho/a.* Beaucoup.

Esan, irakurri berri duzun testuaren arabera, Ramon Saizarbitoriari buruzko hurrengo esaldiok EGIA ala GEZURRA diren:

	EGIA	GEZURRA
1.- Ramon Saizarbitoriak eleberriak baino ez ditu idatzi.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2.- Donostiarra da Saizarbitoria.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3.- Berak bakarrik jarri zuen martxan <i>Lur</i> argitaletxea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4.- Olerkaria ere bada Ramon Saizarbitoria.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5.- "Ehun metro" filmaren gidioia idatzi zuen Ramonek.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

## B testua



ahotsak.com Euskal Herriko hizkerak eta abazko onfarea

Sarrera Hemak Proiektuak Gaiak Hiztegia Aldeak Info Corpusa

Ramon Saizarbitoria Zabaleta

SAIZARBITORIA (Saizarbitoria) (1944)

**Biografia**

Donostiako idazle **aski** ezaguna. Larramendi kalean bizi izan zen umetan. Aita Mutrikukoa zuen eta ama azkoitiarra. Bi **senide** ziren. **Fraide** korazonistetan ibili zen eskolan, ez oso gustura. Rikardo Arregirekin hasi zen kultur **jardueratan** parte hartzen, *Zeruko Argian* kolaborazioak egiten. *Jarrai* antzerki taldean ibili zen, baita irratan ere. Baina batez ere literatur jardunarekin eman zuen **zeresana**: "Egunero hasten delako" liburuarekin (1969) euskal nobelagintza modernizatu zuen; "Ehun metro" eta "Ene Jesus" etorri ziren **ondotik**, **berritzaileak** horiek ere. Lur argitaletxearen **bul-tzatzaileetako** bat da. 70eko **hamarkadaren** bukaeran "Oh Euzkadi" aldizkaria ere sortu zuten Koldo Izagirrek eta biek. Soziologoa da ikasketaz eta ogibidez. Gros auzora ezkondu zen. **Etenaldi** luze baten ondoren, idazten jarraitu zuen; besteak beste "Hamaika pauso" eta "Gorde nazazu lurpean".

**ASKI.**- Nahiko. *Bastante*. Assez.  
**BERRITZAILE.**- *Innovador/a*. Novateur/trice.  
**BULTZATZAILE.**- *Impulsor/a*. Promoteur/trice.  
**ETENALDI.**- *Pausa, interrupción*. Interruption.  
**FRAIDE.**- *Fraile*. Religieux.  
**HAMARKADA.**- *Década*. Décade.  
**JARDUERA.**- *Actividad*. Activité.  
**ONDOTIK.**- Ondoren. *Después*. Après.  
**SENIDE.**- *Hermano/a*. Frère, sœur.  
**ZERESAN.**- *Que hablar*. Commentaires.


Konpara itzazu irakurri berri dituzun bi testuak eta esan:

1.- Zertan dira ezberdin bi testuok?

.....

2.- Zein izan da, zure ustez, bi testuok desberdinak izateko arrazoi nagusia?

.....



HAMA  
Ramon

3 HAMAIKA PAUSO ELEBERRIA

*Hamaika pauso* eleberraren edukiari helduko diogu orain, baina, ezertan hasi aurretik, izenburuari berari erreparatuko diogu.

Ba al dakizu nola itzuli zen liburuaren izenburua gaztelaniaz?

- a- *Once pasos*
- b- *Los pasos incontables*
- c- *Los once pasos*

Segidan, eleberrari buruz idatzitako hainbat testu irakurri ahal izango dituzu:

"Hamaika pauso" Ramon Saizarbitoria idazle donostiarrak idatzitako laugarren eleberria da, 1995ean argitaratutakoa Erein argitaletxearen bidez.

**Oharra:** *Atal honek istorio osoa edo amaiera argitzen du.*

Liburua Angel Otaegiren fusilatzea testuinguru modura hartuta dago idatzia. Tiro egin zuten pertsoez gain, lekukorik gabe hil zen Otaegi, eta bere bizitzako azken momentuen fikziozko berreraikuntza egiten entseatu zen Saizarbitoria nobela honetan. Dena dela, eleberrian Daniel Zabalegi izena eman zion, fikziozko-tasuna nabarmentzeko. Liburuko protagonista nagusia Iñaki Abaitua da, hiztegi bat osatzeko lanean ari den idazlea. Lan horretarako Bartzelonara joan eta Eduardo Ortiz de Zarate ETako militantea ezagutuko du. Honek muga gurutzatzeko laguntza eskatzen diotenean hasiko da bien arteko harremana eta apurka-apurka, Ortiz de Zarate Abaituaren bizitzan sartzen joango da. Nobelan Ortiz de Zarateren pertsonaia da Abaitua eta Zabalegiren arteko lotura zuzena. ETako kidea autoz eraman behar duen batean ikusiko du oso tarte laburrean Abaituak Zabalegi. Bere fusilatzearen ondoren kasuari buruzko xehetasunak biltzen hasiko da nobela bat idazteko asmoz.

Wikipedia

(...) Beste heriotzekin batera, Angel Otaegi da ardatz, bere bizitza trajiko-anonimoa. Pertsonaia-multzoari dagokionez, pertsona ezagun batzuk agertzen dira izen eta guztiz pertsonaia modura; beste batzuk erraz identifika litezke, nahiz eta izenez aldatuta egon. Mila istorio eta mila zati ditu *Hamaika pauso*-k errealitatea fikzioarekin nahasita korapilo etengabearen eta sinesgarritasun eraberrituan. (...)

**Mosaikoa eta grabitazioa**  
*Euskaldunon Egunkaria, 1996-02-03*  
Amaia Iturbide

*Hamaika pauso* oso obra txalotua izan zen: gaztelanirako itzulpenaren arduradun Jon Juaristik haren belaunaldiko euskal eleberririk handia dela esan zuen, eta Olaziregi bat dator belaunaldi baten isla delako baieztapen horrekin.

Eleberria narrazio baten narrazioa da, aurreko narrazioailei buruz mintzatzen den hirugarren narrazioaile batek kontatua. Kutxa txinatarraren barru-barruan dagoen istorioa Daniel Zabalegi (Angel Otaegi pertsonaia historikoaren alter ego-a) 1975ean heriotza zigorra jasotako eta fusilatutako ETakidearen bizitzako azken egunen narrazioa da. Istorio hori berreraiki nahian dabil, hain zuzen, Iñaki Abaitua filologoa, eta aurreko guztia kanpoko narrazioaile batek kontatzen du.

Eleberraren gaia heriotzaren aurreko izua eta erabateko bakardadea da. Izu horrek kutsatzen du Iñaki Abaitua ere, eta ez da narrazioa amaitzeko gauza izango; hala ere, Aldekoaren esanetan, filologoaren porrota eleberrigilearen garaipena da.

**Euskal Literaturaren Hiztegia — Idazlanak**  
Manu Lope Gaseni

Hirurogeiko hamarkadan Ramon Saizarbitoriak euskal nobelari iraultza ekarri zion *Egunero hasten delako* deitutako obrarekin. Hurrengo urteetan *100 metro* eta *Ene Jesus* argitaratu zituen. Eta gero, euskal nobelaren mugak aurkitu baillituen, isiltasuna, ia hogeituro urteko mutualdia. Orain idazleak literaturarekiko zorra kitatu nahi izan duela ematen du testu luze eta latz honekin. 1975.eko fusilamenduak dira argumentuaren ardatza, eta hortik abiatuta azaltzen da zein eragin izan zuten gertaera horiek lagun batzuegan, batez ere Iñaki Abaitua izeneko pertsonaia konplexu eta kontraesanek betetakoagan. Errealitatea eta fikzioa nahasiz (edo hobeto esateko, errealitatearen adabakiekin sortutako fikzioaz) belaunaldi baten kronika egiten digu, desilusiara daraman bidaian. Oroimena du horretarako lagun, eta oroimena lineala ez delarik, aurrera eta atzera saltoka dabilelarik, horrela aletzen zaizkigu kronika honetako gertaerak ere. Liburu sakona, patxadaz irakurtzekoa. Batzuetan irakurleak pentsa lezake aurrera jarraitzeko nobelaren kontra borrokatu behar duela; hala ere, laster konturatuko da lan garrantzitsu baten aurrean dagoela, pasarte batzuk benetan antologikoak baitira, eta ez bakarrik euskaraz idatzitako literaturan.

**Isiltasunaren ondoren Javier Rojo /**  
*El Correo, 1996-05-16*

Eleberrari buruzko erreferentzia hauek irakurrita, berridatziko al duzu zeure hitzekin nobelaren argumentu nagusia?

.....

.....

.....

#### 4 HAMAIIKA PAUSO ELEBERRIKO PERTSONAIK

Eleberritik aukeratu ditugun pasarte batzuk irakurri ahal izango dituzu orain. Horietako bakoitzean pertsonaia baten gaineko deskribapena edo azalpena eskaintzen zaigu.

##### **Iñaki Abaitua**, hiztegi-egilea

Iñaki Abaituak ez zekien haur bati hitz egiten. Are gutxiago negarrez bazegoen. Gauean haurrak negarrez esnatzen dituen bakardadeak ikaratsen zuen bera ere.

13.or.

Iñaki Abaituak gorroto zuen barre-argara hura, zorionaren adierazpen gehiegizkoa iruditzen zitzaiolako, edo zorion gehiegizko baten erakuspen inozentea, beharbada.

15.or.

##### **J.J. Lasa**, psikiatra

J.J. Lasa psikiatraz oroitzen da: antiojoak bekokian, begi nekatuak igurtzeko ohiko keinua egiten. "Et muriemur" esan zuen hark ere, eta Hernani kaleko trafiko hotsak errubrika jarri zion esapidearen izugarriari.

Esku hutsak erakutsi zizkion, finak, delikatuak, "horixe dugu" adierazteko diagnostiko txar bat ematera beharturik balego bezala. Gero, besoak gurutzatuz, heriotzaz ohartzeak eraginiko errosario luzea aletu zuen: "Haurrak heriotzaz jabetzearekin hartzen du bere indibidualtasunaren kontzientzia", edo "gizona bere hildakoen sarraskiak ehorzten dituenetik da gizon" eta beste asko, ildo horretakoak. Irribarre egiten zuenean distiratsu ageri zitzaion beheko ezpaina, goikoa baino lodiagoa, eroria.

19.or.

##### **Daniel Zabalegi**, heriotza zigorra jaso eta fusilatutako ETAkidea

1942. urtean jaioa. 1,70 luze, 84 kilo. Hamabost irabaziko zituen atxilotu zutenetik epaitu arte igaro ziren zortzi hilabeteetan; baita atzera galdu ere, pelotoi aurrean bista finkatzeko magnolia adar bat aukeratu zuenerako. Ardo koloreko angioma batek estaltzen zion eskuinaldeko masaila, begi ondotik ezpain ertzera. Hortik zetorkion "muturbeltz" goitizena. Haren sumarioan azaltzen ziren poliziaren informetan hainbat aldiz irakurri ahal izango zuen bezala, "beste ezaugarririk ez".

13.or.

##### **Susana**, Iñakiren maitalea

Susana, berriz, mundu petral baten eredurik jatorre-netakoa izateaz gain, fisikoki ez zen oso erakargarria.

44.or.

Beheko ezpainak goikoa, zertxobait besterik ez bazen ere, gainditzeko modua –negarrez hasteko zorian zirudien- ez zitzaion sekula gustatu, eta gainerakoak ez zuen interes handiagorik: begi gaitakara txiki biziak, sudur harroak, gehienez ere neska polit bat definitzen zuten. Ilea oso motza erabili ohi zuen, tankera hartako aurpegi txiki eta biribil bati zegokionez. Gorputzez ez zen hain diskretua, eta estiloa zuen.

47.or.

##### **Eduardo Ortiz de Zarate**, ETAko militantea

Eduardo Ortiz de Zarate a. Edorta, Zator, Zapa, Zadorra, esaten zuen Daniel Zabalegiren sumarioan ageri zen poliziaren informea. Gasteizen 1950ean jaioa. Ekonomialari ikasketak amaitu gabea. Beltzarana, aldizka bizarra luzatzen utzi ohi du. Ezaugarri, sudur gainetik gora bekokia gurutzatzen dion ebatondoa.

23.or.

Lot ezazu ondorengo esaldi bakoitza dagokion pertsoniarekin:

1.- Kopetan orbaina du.

.....

2.- Bere aurpegiarekin bat datorren ile-orrazkera du.

.....

3.- Pisuarekin gorabeherak ditu.

.....

4.- Bakarrik egoteko beldur da.

.....

5.- Begiak marruskatzeko ohitura du.

.....

5 HAMAICA PAUSO ELEBERRIKO HAINBAT GERTAKARI

Liburutik hartutako hainbat pasarte dituzu orain ere irakurgai. Testu-zati bakoitzari buruzko izenburu bat idatzi dugu, testuei behar bezala lotzen saia zaitezten. Kontuan izan lau testu daudela eta sei izenburu. Bi, beraz, sobera daude.

- a) Zure besoetan gorde nahi dut
- b) Lekukoaren fusila
- c) Senideak kanpoan, maitalea barruan
- d) Emakume izan nahi duten gizonen teoria
- e) Euskaldun guztiak trabestiak dira
- f) Pelotoia prest

**A testua**

Ukatu egiten du eskaintzen zaion benda beltza, buruaren zirkin apal batez, eta begirada bere adrearentzat nahi lukeen lekukoaren bila galtzen zaio, alferrik. Aurrean, fusilek osatzen duten lerroa hertsiki egin da, hiltzaile bakoitzak besteen artean ezkutatuta nahi balu bezala. Masailak kulaten kontra estutu dituztenean jada, begientzako euskarri bila ahalegintzen da, ikararen zorabioaren ihesi, «Apunten» oihu ozena entzuten du. Hostoen firfirak burua itzularazten dio, ordea, eta zeru urdina dakusa.

84-85.orr.

**C testua**

Itzuli da Julia. Hatz txikienaren eta nagiaeren artean eusten dion zigarroa erretzen, kea goseti irentsiz. Oinetan esertzen zaio Iñaki Abaituari, artilezko alfonbra zuriaren gainean, eta zigarroa uzten ez duten hatz gihartsuak haren hatzei lotzen zaizkie, gora egiten dute, xalto ttikika, eserlekuaren albo batean abandonaturik daukan besoan zehar, leporean bila. Zehatzak dira hatz gihartsuen mugimenduak. Eta Iñaki Abaitua haragiaren tristeziak mintzo den kanta baten leloaz oroitzen da.

- Maitasuna egin nahi nuke –esaten du, zergatik jakin gabe, edan izanak ematen dion ausardiaz profitatze-ko, besterik gabe. Nolanahi ere, egin nahi lukeen edo egin dezakeen azken gauza da maitasuna, ahituta sentitzen baita, une batetik bestera ingurune guztia zorabio batean bueltaka hasiko ote zaion beldur. "Besarkatu egin nahi zintuzket" esan behar ziokeen, norbaiten besoetan gordetzeko gogoia baitu.

Baina "maitasuna egin nahi nuke" esan du, eta Juliak "nik ere nahi dut" erantzuten dio, belauniko jarriz, gerritik besarkatzen duelarik, altxa dadin. Gero, pausoa baldar, ibilera zalantzakor, sala gurutzatzen dute, Arantxa eta Ionon aurretik pasatzean –lon etzana, ustez iluntasunean gordea, eta Arantxa zurrun, haren buruari magalean eutsiz, gorpu baten beilan bailegoen– haien begirada nabarmenaren deserosotasuna sentituz.

201-202

**B testua**

Egunero, gosaldu ondoren, Diego bela egitera iriten zen, eta umeak hondartzara jaisten ziren beren balde eta palekin. Egunero, halaber, haiek irten bezain laster, Susanak eta berak larrutan egiten zuten leihopeko sofa gainean. Otzanki onartu ohi zuen sexu saioa, haren sua baretzea gero eta zailago bazitzaion ere. Azkenerako higuigarri gertatu zitzaion haren aho txikia, muxin egiteko ateratzen zuten muturtuxoa, –"ez nauzu maite, ez nauzu baterre maite, gaizto horrek"–. Higuigarri gertatu zitzaion aho hura, zabal-zabal egin eta, goseti, amaierarik gabeko mihia berearen bila luzatzen zuenean, berak estoikoki estuturik zeuzkan hortzen kontra.

261.or.

**D testua**

–Beharbada, hor datza euskaldunok jateko dugun zaletasun neurritz gainekoaren esplikazioa. Sabela emakume haurdunaren neurrira gizentzea lortzen dugun arte. Libreki espekulatuz, trabestismo era ezkutuko baten adierazgarri litzateke.

Hain zuzen ere, pontxo berdez jantziak esplikatzeko zuzena:

–*Bueno, yo lo he debido de leer en alguna parte, y seguramente es pura especulación* –esan zuen norbait iraintzeko beldurrez–. *Alguien, no sé quién, decía que el hombre vasco se refugia en la sociedad huyendo de la mujer pero, precisamente para, poniéndose el delantal, asumir roles que son tradicionalmente femeninos.*

–*Una forma peculiar de travestismo que estaría en relación con una sexualidad cuando menos peculiar.* Berriro ere algarak.

–*No me digas que no lo sabías.*

–*No lo sabía, de verdad.*

34-35.orr.

**A testua** .....

**B testua** .....

**C testua** .....

**D testua** .....

## 6 HAMAICA PAUSO ELEBERRIA: LABURBILDUZ

Sekuentziaren bukaeran gaude. Orain arteko jarduerak eginda, aukera hauek proposatu nahi dizkizugu, zuretzat egokiena dena har dezazun:

- 1.- Sekuentzia egin aurretik Ramon Saizarbitoria idazlea eta *Hamaika pauso* liburuaz zenekiena eta orain dakizuna konparatu eta jaso duzun informazio berria idaztea.
- 2.- Zure ezagun batek galdetuko balizu zein den *Hamaika pauso* liburuaren gaia, zer erantzungo zenioke? Gomendatuko al zenioke? Zergatik?
- 3.- Errepasa ezazu sekuentzian barrena bildu duzun informazioa eta osa ezazu testu bakar bat non irakurle batek Ramon Saizarbitoria idazlea eta *Hamaika pauso* eleberria deskubrituko dituen.
- 4.- Azkenik, irakurri duzun gutzia kontuan hartuz, liburua irakurtzeko gogoia piztu al zaizu? Konta iezaguzu zergatik.

Zure aukera edozein izanda ere, zure lana bidaltzera animatu nahi zaitugu, [argitalpenak@habe.org](mailto:argitalpenak@habe.org) helbidera mezu bat idatziz.

## ERANTZUN-ORRIA

### 2 RAMON SAIZARBITORIAREN BIOGRAFIA: ZERTZELADA BATZUK

- 1.- GEZURRA
- 2.- EGIA
- 3.- GEZURRA
- 4.- EGIA
- 5.- GEZURRA

- 1.- Lehenak Saizarbitoria idazlea, egilea, aurkezten du, batez ere. Eta bigarrenak, berriz, bere bizitzari buruzko datu pertsonalak ere ematen ditu. Bigarren testua irakurlearengandik hurbilago dago hainbat molderi esker: "idazle aski ezaguna" "ez oso gustura" "Gros auzora ezkondu zen". Horretaz gain, aipamen ugari egiten ditu idazlearen bizimoduaren gainean: Larramendi kalean bizi izan zela umetan, gurasoak nongoak ziren, nora ezkondu zen... 2.- Testuak irakurle ezberdinek irakurriko dituztela.

### 3 HAMAICA PAUSO ELEBERRIA

b aukera da zuzena. Izan ere, *hamaika* zenbakia euskaraz izan baitaiteke, baita ere, "asko".

*Hamaika pauso* eleberraren protagonistetako bat Daniel Zabalegi da. Pertsonaia honen bizitzako azken momentuen fikziozko berre-irakuntza egiten du Saizarbitoriak liburu honetan, frankismo garaian fusilatutako Angel Otaegi ETAKidearen fusilamenduari paralelismoa eginez.

Gogoan izan garai hartako azken fusilamenduak izan zirela Txiki eta Otaegi ETAKideenak, FRApeko hainbat kideenekin batera, Franko hil aurretik.

Baina liburuko benetako protagonista Iñaki Abaitua da, hiztegi bat osatzeko lanean ari den idazle-hiztegi-gilea. Bartzelonara joan eta Eduardo Ortiz de Zarate ETako militantea ezagutuko du han. Honek muga gurutzatzeko laguntza eskatzen dionean hasiko da bi pertsonaien arteko harremana eta pixkanaka, Ortiz de Zarate Abaituaren bizitzan parte izaten hasiko da.

Ortiz de Zarateren fusilatzearen ondoren, kasuari buruzko xehetasunak biltzen hasiko da Iñaki Abaitua eleberrari bat idazteko asmoz.

### 4 HAMAICA PAUSO ELEBERRIKO PERTSONAIK

- 1.- Eduardo
- 2.- Susana
- 3.- Daniel
- 4.- Iñaki
- 5.- J.J. Lasa

### 5 HAMAICA PAUSO ELEBERRIKO HAINBAT GERTAKARI

- |                 |   |
|-----------------|---|
| <b>A testua</b> | f |
| <b>B testua</b> | c |
| <b>C testua</b> | a |
| <b>D testua</b> | d |

**HADE**

HABEko Administrazio eta Berrikuntza Zerbitzua

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



HABE aldizkaria  
Vitoria-Gasteiz kalea, 3  
20018 DONOSTIA

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Zirrimarra/Truke  
(Andoain-Beasain)

INPRIMATEGIA:  
GERTU  
Oñati, Gipuzkoa

LEGEZKO GORDAILUA  
BI- 2251/81  
ISSN: 0212-6788

Euskal Autonomia Erkidegoko  
Administrazio Orokorra  
HABE

[www.habe.euskadi.net](http://www.habe.euskadi.net)  
Tel. 943 02 26 00  
Faxa: 943 02 26 01  
e-mail: [argitalpenak@habe.org](mailto:argitalpenak@habe.org)  
Harpidetzak: [harpidetzak@habe.org](mailto:harpidetzak@habe.org)